

# A2.1 Maila

## Zenbat buru, hainbat plan

Sekuentzia honetan jarduera hauek egingo dituzu:

- A. Audioaren zati bat entzun bitartean, galderen erantzun zuzenak identifikatu, informazio orokorrari erreparatzeko.
- B. Audio osoa entzun bitartean, galderen erantzun zuzenak identifikatu, datu zehatzez jabetzeko.
- C. Zenbait esaldik zein funtzio komunikatibo duten identifikatu.

## **TRANSKRIPZIOA**

Josu eta Amaia eztabaidatzen ari dira zein plan egin asteburuan. Entzun audioaren zati bat eta erantzun galderari.

AMAIA.- Bueno, eta asteburuan, zer?

Bost bat lagun hasiko dira hizketan, denak batera, gauzak proposatzen.

JOSU.- Aizue, aizue, entzun! Isildu zaitetzte pixka batean. Banan-banan, mesedez.

LAGUNA 1.- Sagardotegira joateko garaia da. Zer iruditzen zaizue, sagardotegia eta gero parranda Hernanin?

LAGUNA 2.- Oso ondo, Baina autoa hartu beharra dago bueltatzeko.

AMAIA.- Bueno, nik beste plan bat daukat: eta mendira joaten bagara?

LAGUNA 1.- Mendira? Baina, parranda egiten badugu, ez gara goiz jaikiko.

AMAIA.- Aintzane, mendira joaten bagara, ez dugu parranda egingo!

LAGUNA 1.- A. barkatu!

JOSU.- Joango gara Balerdi mendira? Oso polita da, sekulako bistak daude eta ordu pare batean iritsiko gara tontorrera.

AMAIA.- Bai, eta ondoren Aralarko San Migelen bazkalduko dugu.

LAGUNA 3.- Ez da plan txarra, baina nik nahiago dut Gorbealara igo. Ez naiz sekula izan.

## **ENTZUN ONDOREN**

ACTING.- Josu eta Amaia tabernan daude beste ikaskide eta lagunekin.

AMAIA.- Bueno, eta asteburuan, zer?

Bost bat lagun hasiko dira hizketan, denak batera, gauzak proposatzen. Zurrumurru bat entzungo da

JOSU.- Aizue, aizue, entzun! Isildu zaitetze pixka batean...Banan-banan, mesedez.

LAGUNA 1.- Sagardotegira joateko garaia da. Zer iruditzen zaizue sagardotegia eta gero parranda Hernanin?

LAGUNA 2.- Oso ondo. Baina autoa hartu beharra dago bueltatzeko.

AMAIA.- Bueno, nik beste plan bat daukat: eta mendira joaten bagara?

LAGUNA 1.- Mendira? Baina, parranda egiten badugu, ez gara goiz jaikiko.

AMAIA.- Aintzane, mendira joaten bagara, ez dugu parranda egingo!

LAGUNA 1.- A, barkatu!

JOSU.- Joango gara Balerdi mendira? Oso polita da, sekulako bistak daude eta ordu pare batean iritsiko gara tontorrera.

AMAIA.- Bai, eta ondoren Aralarko San Migelen bazkalduko dugu.

LAGUNA 3.- Ez da plan txarra, baina nik nahiago dut Gorbealara igo. Ez naiz sekula izan.

LAGUNA 2.- Bikain. Bezperatik joaten bagara, Zeanurin egingo dugu lo; hórrela, batzuek, nahi badute, parranda egingo dute, eta lotan geratuko dira; eta beste batzuek parrandarik ez dute egingo eta Gorbealara igoko dira. Zer diozue?

JOSU.- Sekulako plana, Antton, oso ondo pentsatuta dago.(adostasuna) Denok alde zaudete?

AMAIA, IKASKIDEAK.- Bai!

JOSU.- Ba orduan, arratsaldeko seietan geratuko gara, Aintzaneren etxearen aurrean, beti bezala, ados?

AMAIA.- Oso ondo. Bueno, Josu eta ni bagoaz( Josuri) Goazen. Ondo segi!

IKASKIDEAK.- Bale, bai, aio, agur!

**ETENA**

AMAIA.- Josu, ez da hain zaila izan, ezta?

JOSU.- Ez, neska, ideia bikaina izan du Anttonek.

AMAIA.- Bai. Zuk zer egingo duzu, parranda ala mendia?

JOSU.- Ba seguru asko mendira joango naiz, baina orain ezin dut jakin: parranda polita bada, oso lasai geratuko naiz ohean.

AMAIA.- Alfer hori!

JOSU.- Gauza asko egiten ditugu aste barruan, eta asteburuan pixka bat inprobisatzea ez da txarra izango

## **A.. Entzun eta erantzun zuzena aukeratu**

**1. Hauetako zein plan proposatu dituzte? Bi erantzun zuzenak dira.**

- a) Sagardotegira eta gero parranda
- b) Mendi buelta bat Hernanin
- c) Dantzalekura joatea
- d) Mendira joatea
- e) Kirol egitea

**2. Hauetako zein toki aipatu dituzte? Bi erantzun zuzenak dira**

- a) Kontxako hondartza
- b) Zeanuriko museoa
- c) Balerdi mendia
- d) Txindoki mendia
- e) Zeanuri

## **B. Audio osoa entzun bitartean, galderen erantzun zuzenak identifikatu, datu zehatzez jabetzeko**

### **1. Balerdi mendian...**

- a) Berandu arte geratuko dira.
- b) Sekulako bistak daude.
- c) Ia galdu egin dira.

### **2. Aralarko San Migelen...**

- a) egun pasa egingo dute
- b) bazkalduko dute
- c) bista zoragarriak daude.

### **3. Zeanurin...**

- a) lo egingo dute.
- b) ederki bazkalduko dute.
- c) lagunak ikusiko dituzte.

### **4. 2.pasartean: Eta Josuk, zer egingo du?**

- a) Bi planak egingo ditu.
- b) Parranda egingo du.
- c) Seguruenik mendira joango da.

## C. Zenbait esaldik zein funtzio komunikatibo duten identifikatu.

Erreparatu esaldi hauei. Entzun duzun audioan agertu dira. Zer adierazteko erabili dituzte? Kokatu laukian.

	Plana proposatu du	Ados nago	Aitzakia jarri du
Zer iruditzen zaizue sagardotegia eta gero parranda Hernanin?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Eta mendira joaten bagara?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Baina, parranda egiten badu, ez gara goiz jaikiko.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Baina, autoa hartu beharra dago bueltatzeko.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Sekulako plana!	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Antton, oso ondo pentsatua dago!	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

# ARIKETA GUZTIEN ERANTZUNAK

## A.

1. Sagardotegira eta gero parranda / Mendira joatea.
2. Balerdi mendia / Zeanuri

## B.

1. Sekulako bistak daude
2. Bazkalduko dute
3. Lo egingo dute
4. Seguruenik mendira joango da.

## C.

Plana proposatu du

Plana proposatu du

Aitzakia jarri du

Aitzakia jarri du

Ados dago

Ados dago